



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,
xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx JAUNAK KARATE ETA DIZIPLINA ELKARTUEN
EUSKAL FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE BATZORDEAREN 2016KO
ABENDUAREN 5EKO ZIURTAGIRIAREN KONTRA AURKEZTU DUENA
(2017KO URTARRILAREN 10EAN ARGITARATUA). BERTAN,
LURRALDE FEDERAZIOEK EMANDAKO LIZENTZIA KOPURUA ETA
ESTAMENTUAK ETA BATZARKIDE KOPURUA ZIURTATZEN DIRA.

Espediente-zenbakia: 27/2017

AURREKARIAK

Lehen.- Karate eta Diziplina Elkartuen Euskal Federazioaren (aurrerantzean, EKF) batzarkideak, zuzendaritza-batzordea eta lehendakaria aukeratzeko 2016. urteko hauteskunde-prozesuarekin lotuta, erreklamaziogileak idazki bat aurkeztu dio Kirol Justiziako Euskal Batzordeari (aurrerantzean, KJEB), honako hau adieraziz:

«Honako honen bidez, **Euskal Karate Fundazioaren hauteskundeak INPUGNATU nahi dira.** Izan ere, hauteskundeak datu okerretan edo nahita aldatutako datuetan oinarritu dira.

2017ko otsailaren 13ko **122.352 erreg.** bidez, **erantsitako idazkia** bidali nuen Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara, hark Euskal Karate Federazioaren KONTU-HARTZAILEARI bidera ziezaion, eta, bertan, **Euskal Karate Federazioaren hauteskundeen kontrako ERREKURTSOA jarri nuen.**

- LEHENENGO orrian, ERREKURRITUTUTAKO GERTAKARIAREN laburpena eta errekurtsoa aurkezteko nire legitimazioa jasotzen ziren.
- BIGARREN orrian eta hurrengoetan, berriz, IDAZKIA KONTU-HARTZAILEARI BIDAL ziezaiotela eskatu nuen, Euskal Karate Federazioak ustez faltsua zen ziurtagiri bat egin zuela adieraziz, Kirol Erakundeen Erregistrotik lortutako eta Lurralde Erakundeek bidalitako datuak oinarritzat hartuta.



*Inpugnazioaren EBAZPENA bidali ez didatenez, nire inpugnazioa kontuan har dezatela eskatzen dut, **zuen aurrean**, erantsitako idazkian egindako eskaerak berretsiz. **ESKATZEN DUT**:*

- 1. Hauteskundeak guztiz baliogabe daitezela*
- 2. Eskatutako zerrendak bidal diezazkidatela, agiriak faltsuak diren ala ez frogatzeko*
- 3. XXXXXXXXXXXXX jaunaren txosten juridikoa*
- 4. Eta, agiriak faltsuak izanez gero, dagozkien neurriak har ditzazuela.*

*Era berean, har ezazue kontuan **2017ko urtarrilaren 3ko 5809 erreg.**, haren inguruan ere ez baitut erantzunik jaso. Baita**2017ko urtarrilaren 13ko 34.819 erreg.** idazkia ere, ez baitut haren erantzunik jaso.*

Egindako eskaerak berretsi nahi ditut, ez baitira oraindik ebatzi.»

Idazki horietan Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 5eko ziurtagiriaren (2017ko urtarrilaren 10ean argitaratua) inpugnazioa jasotzen da funtsean. Bertan, Lurralde Federazioek emandako lizentzia-kopurua eta estamentuak eta batzarkide-kopurua jasotzen dira, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan federatutako pertsona-kopuruaren datu okerrak edo faltsuak gaineratzen dira. Horrenbestez, federatuen errolda eskatzen da, Hauteskunde Batzordeak egindako hauteskunde-errolda eta estamentu bakoitzeko federatuen inguruko hainbat datu (adina, kirol-jarduera esanguratsuak, tituluak eta abar) egiaztatu eta horiek batzarkide izateko baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatze helburuarekin.

Bigarrena.- EKFri espedientea eskatu ostean, alegazioak egiteko aukera eskaini zaio hamabost egun balioduneko epean. Hark hainbat alegazio aurkeztu ditu.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Errekurtsogilearen legitimitateari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Federazioari dagokion erroldan teknikarien estamentuko kide gisa agertzen da, 11.527 zenbakiko lizentziarekin. Baldintza hori Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 21. artikuluan jasotzen da eta, haren bidez, hauteskunde-araudiak prestatzeko eta euskal eta lurraldeko kirol-federazioen hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dira (aurrerantzean, hauteskunde-agindua), hautesle izateko eta, beraz, hauteskunde-prozesuan parte hartzeko.

Bigarrena.- Errekurtsoa jartzeko epeari dagokionez, eta Hauteskunde Batzordeak onartutako hauteskunde-egutegi berriarekin bat etorritz, Lurralde Federazio eta estamentu bakoitzeko ordezkarien kopurua eta hauteskunde-erroldak inpugnatzeko epea 2017ko otsailaren 14an amaitu zen. Horrenbestez, eta errekurtsoa Hauteskunde Batzordean otsailaren 13an jarri zenez, hura epe barnean gauzatu zen.

Paragrafo honetan, Hauteskunde Batzordeak errekurtsoa epez kanpo jarri izanari dagokionez egindako alegazioari egin behar zaio erreferentzia. Zentzu horretan, abenduaren 5eko ziurtagiria –2017ko urtarrilaren 10etik aurrera izan zituen ondorioak hirugarrenen artean (argitaratu zen eguna)– eta bertan jasotako erroldak bere garaian errekurritu zirela esan behar da, Batzordeak 2017ko urtarrilaren 31n hauteskunde-prozesua partzialki baliogabetzea adostu izanaren ondorioz. Horregatik, errekurtsu-epe berri bat ireki dela ulertu behar da, Hauteskunde Batzordeak berak Federazioaren web-orrian argitaratutako hauteskunde-egutegi berrian xedatzen den moduan. Hauteskunde Batzordeak modu kontraesankorrean jardun du, orduan errekurtsoa jartzeko epea eman eta orain ukatu egiten baitu.



Bestalde, ziurtagirian jasotako datuak errekurritu ez zirela dio, Lurralde Federazioen aldetik batez ere. Bestalde, Federazio horien (Bizkaiko eta Gipuzkoako Federazioen) webgunean argitaratutako informazioa aintzat hartuta, honako hau ondoriozta daiteke: errekurtsua ez aurkeztu arren, horiek beren hauteskundeetan erabilitako hauteskunde-errola ez dator bat abenduaren 5eko ziurtagirian jasotako zifrekin.

Hauteskunde Batzordeak errekurtsua ebatzi ez duenez, hauteskunde-aginduaren 33. artikulua aplikatu behar da eta, beraz, hura ezetsizat jo eta KJEBren bidea geratu da irekita.

EKFren Hauteskunde Araudiaren 15. artikuluari jarraiki, Hauteskunde Batzordearen erabakiak Batzorde honen aurrean errekurritu ahal izango dira zazpi egun naturaleko epean. Kasu honetan, epe hori otsailaren 24an amaitu zen, errekurtsua aurkeztu zen egunean, alegia.

Hirugarrena.- Prozedurazko araudiak errekurtsuak hainbat administrazio-egoitza eta -organotan aurkeztea ahalbidetzen badu ere (Zuzenean, Correos, ebatzi behar duen administrazio-organoan bertan eta abarretan), errekurtsogileak behar bezala identifikatu behar du errekurtsua nori bideratuta dagoen, hau da, ebatzi behar duen organo eskuduna zein den. Kasu honetan, Hauteskunde Batzordea edo KJEB izango lirateke (2012ko Aginduaren 32. artikulua: «*Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsuak Hauteskunde Batzordeari berari zuzenduko zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkion kontuetan izan ezik*»)

Organo bakoitzak bere funtzioak eta eskumenak ditu, Batzorde honek errekurtsogile berari bideratutako beste erabaki batzuetan azaldu duen moduan, eta, beraz, errekurtsua «hedatzeko» asmoak –horretarako Kirol Zuzendaritza «posta» gisa erabiliz– haren arrazoiak eta oinarriak ulertzeko eginkizuna oztopatzen du.



Gainera, errekurtsogileak berak horren «deserosotasuna» eta eragozpenak hauteman ditu, Kirol Zuzendaritzari bidalitako idazkietako batean honako ohar hau gaineratu baitu: «*Idazki honetan jasotakoa konfidentziala izango da Hauteskunde Batzordeak jaso arte, dokumentuaren argitalpenean nahastutako pertsonak [(hauteskunde-batzordearen ziurtagiria (2017-01-10))] errekurtsu hori Hauteskunde Batzordeak berak baino lehenago bereganatu dezaten.*»

Laugarrena.- Errekurtsogileak okertzat edo faltsutzat jotzen ditu Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 5eko ziurtagiria (2017ko urtarrilaren 10ean argitaratua) eta haren edukia. Bertan, EKFn afiliatutako epaile, teknikari, kirolari eta klubetako kopurua jasotzen da, Lurralde Federazioen arabera banatuta, baita afiliazio horien arabera dagozkien batzarkide-kopurua eta estamentuak ere. 2017ko urtarrilaren 31ko erabakiak errolda horiek berretsi ditu, eta hauteskunde-prozesua partzialki baliogabetzea erabaki da. Era berean, lurralde-federazio bakoitzari dagokion batzarkide-kopurua berretsi da.

Ondorio horietarako, kontuan izan behar da EKFn hauteskunde-errolda eta Lurralde Federazioen hauteskunde-erroldak elkarrekin zuzenean lotuta daudela, horiek baitira Euskal Federazioaren Batzarreko ordezkariak banatzeko oinarria. Hala, hauteskunde-aginduaren 21. artikuluan honako hau jasotzen da:

- «1.- *Hauteskunde-erroldan jasota ageri da hautagai eta hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, hain zuzen ere kasuan kasuko federazioan sufragiorako eskubidea aldi baterako edo behin betiko galdu ez dutenena.*
- 2.- *Lurralde-federazioetako biltzar orokorretako kideek osatuko dute euskal federazioen hauteskunde-errolda.*»

Era berean, honako hau dio Euskal Karate Federazioaren Hauteskunde Araudiaren 7. artikulua: «*Hauteskunde Batzordeak dagokien ordezkari-kopurua*



esleituko dio hiru lurralde-federazioetako Estamentu bakoitzari, lurralde-estamentu bakoitzaren eta guztizkoaren lizentzia-kopurua aintzat hartuta. Euskal Federazioaren errolda hiru lurralde-federazioen errolden guztizko batura da.»

Bestalde, honako hau zehazten da hauteskunde-aginduaren 55. artikuluko 3. zenbakian: *«Lurralde-federazio bakoitzaren ordezkariak izendatzeko, euskal federazio bakoitzaren hauteskunde-batzordeak bere erroldak, artxiiboak edo fitxategiak erabiliko ditu, bai eta lurralde-federazioei eskatzen zaien dokumentazio guztia ere.»*

Horrela, bada, Lurralde Federazioen batzarkideak EKfaren erroldak erabiliz esleitzen da, baina honako hau dio 55. artikuluko 4. paragrafoak: *«Euskal federazioen hauteskunde-batzordeek ez dute eskumenik izango ebazteko lurralde-federazioetan egindako hauteskunde-prozesuak Zuzenbidearekin bat datozen ala ez datozen, nahiz eta hauteskunde-prozesu horiek gerora ondorioak izan federazioen biltzarren osaketan. Prozesuak baliozkotasunez egindakotzat joko dira eta, hortaz, hauteskunde-batzorde horiek aintzakotzat hartu beharko dituzte hauteskundeen emaitzak eta lurralde-federazioetako biltzarkideak onartu, salbu eta dagokien administrazio-bidean edo bide judizialean balio gabetu edo ezetsi ez badira.»*

Bi errolden arteko lotura zehaztu ostean, hauteskunde-batzordeak bere alegazio-idazkian bidalitako datuak aztertu behar dira, baita EKf 2016ko abenduaren 5ean bidalitako ziurtagirian jasotzen direnak ere.

| | KIROLARIAK | TEKNIKARIAK | EPAILEAK | KLUBA |
|------------------|------------|-------------|----------|-------|
| Bizkaiko errolda | 560 | 41 | 45 | 44 |



| | | | | |
|-------------------------------|-----|----|----|----|
| Bizkaiko EKFren ziurtagiria | 547 | 41 | 45 | 46 |
| Bizkaiko batzarkide-kopurua | 2 | 1 | 1 | 11 |
| Gipuzkoako errolda | 553 | 37 | 28 | 17 |
| Gipuzkoako EKFren ziurtagiria | 550 | 39 | 40 | 37 |
| Gipuzkoako batzarkide-kopurua | 2 | 1 | 1 | 9 |
| Arabako errolda | 241 | 4 | 13 | 6 |
| Arabako EKFren ziurtagiria | 241 | 4 | 13 | 6 |
| Arabako batzarkide-kopurua | 1 | 0 | 0 | 1 |

Bestalde, EK Fren eta Lurralde Federazioen (Bizkaiko eta Gipuzkoako Federazioen) web-orrietan (Arabakoak ez du web-orririk) argitaratutako erroldak nahitaez argitaratu behar dira, hauteskunde-aginduaren 37. artikuluan xedatutakoari jarraiki: «*Interneten web-orri bat duten kirol-federazioek bertan sartu beharko dituzte hauteskunde-eroldaren testuak, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-erregelamendua, eta interes orokorrekoak diren hauteskunde-batzordeen ebazpenak. Publizitate horrek bertan aipatzen diren pertsonen ohorea eta intimitatea errespetatu beharko ditu*». Horietan, honako datu hauek gaineratzen dira:

| | | | | |
|--|------------|-------------|----------|-------|
| | KIROLARIAK | TEKNIKARIAK | EPAILEAK | KLUBA |
|--|------------|-------------|----------|-------|



| | | | | |
|---------------------------|-----|----|----|----|
| Bizkaiko errolda | 363 | 41 | 45 | 44 |
| EKFren errolda | 363 | 41 | 45 | 44 |
| Gipuzkoako errolda | 293 | 39 | 40 | 29 |
| Gipuzkoako EKFren errolda | 293 | 39 | 40 | 29 |
| Arabako EKFren errolda | 241 | 4 | 13 | 6 |

Horrela, datu horiek egiaztatuz gero, bien artean (hau da, abenduaren 5eko ziurtagirian agertzen diren errolden eta EKFren nahiz Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Federazioen web-orrietan argitaratutako errolden artean) desberdintasun bereziki nabarmena dagoela esan genezake kirolari-kopuruari dagokionez, eta zertxobait txikiagoa klub-kopuruari dagokionez. Bestalde, hori ez da horrela teknikariei eta epaileei dagozkien estamentuetan, bi dokumentuetan berdina baita afiliatu-kopurua. Zentzu horretan, Hauteskunde Batzordeak alegatu du desberdintasun horiek datetan oinarri daitezkeela, 2016ko abenduaren 5ean igorritako ziurtagiriak 2016ko ekainaren 30era arteko datuak jasotzen baititu, hauteskunde-aginduaren zazpigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz: «*Agindu honen 45., 46., 47. eta 48. artikuluen ondorioetarako, lurralde-federazioek eta euskal federazioek urte olinpikoaren lehenengo seihilekoari dagokion denboraldian dituzten lizentzietan oinarrituko dituzte beren hauteskunde-prozesuak*». Lurralde-federazioen hauteskunde-erroldei dagozkien web-orrietan argitaratutako erroldek informazio eguneratuagoa izan dezakete, ziurtagiriak ez baititu Lurralde Federazioen erroldetako datuak bakarrik gaineratzen, baita gainerako fitxategi eta artxibo guztiak ere.

Nolanahi ere, alegazio-idazki horretan bertan, Batzordeak Lurralde Federazioen (Bizkaiko eta Gipuzkoako Federazioen) erroldei buruzko zifrak



eskaintzen ditu, eta horiek ez datoz bat Federazio horien web-orrietan hauteskunde-errola gisa argitaratutako datuekin.

Azken finean, Hauteskunde Batzordeak behin betikotzat eman duen hauteskunde-errola bat argitaratu du bere webgunean (Lurralde Federazioek beren hauteskunde-prozesuetan erabili duten errola bera), baina, egiaz, batzarkideak aurreko beste errola bat erabiliz kalkulatu ditu. Horrenbestez, hauteskunde-prozesuan mantendu beharreko publizitate- eta gardentasun-printzipioa urratu du.

Izan ere, Hauteskunde Batzordeak partzialki baliogabetu zuen EKFn hauteskunde-prozesua, aurtengo urtarrilaren 31ko ebazpen bidez. Halere, eta Idazkaritzak ziurtatutako erroldak (2016ko abenduaren 5ean) eta horietatik eratorritako batzarkide-kopurua berretsi arren, zifra baxuagoko behin betiko erroldak argitaratu ditu kirolarien estamentuan; murrizketa hori % 34koa (Bizkaian) eta % 47koa (Gipuzkoan) da ziurtagiri horretan frogatutakoekin alderatuta. Dena dela, Batzordeak ez zuen ziurtagiria aldatu.

Azaldutakoa aztertu ostean, eta Batzorde honen ustez, desberdintasun horiek nahita egindakoak izan ala ez, estamentu baten erroldetako alde esanguratsu horrek Lurralde Federazioek EKFn Batzarrean duten ordezkagarritasuna alda dezake. Horri hauteskunde-prozesu guztietan mantendu beharreko gardentasun eta publizitaterik eza gehituta, hura baliogabetu dadila eskatu da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48.1. artikuluari jarraiki.

Horrenbestez, jarduketa guztiak estamentuen araberako behin betiko errola egin den momentura arte atzeratu beharko dira. Gainera, errola hori EKFn web-orrian argitaratu beharko da, hauteskunde-araudiak eskatutako beharrezko baldintza guztiak betez.



Azkenik, eta EKFrene hauteskunde-errolde eta Lurralde Federazioek egindako errolde arteko lotura zuzena kontuan hartuta, haren Hauteskunde Batzordeari eta azken horiei zuhurtzia handiagoa eskatu behar zaie horiek prestatzeko orduan, federazioen hauteskunde-prozesu guztiek mantendu behar duten gardentasuna babeste aldera. Ondorio horietarako, hauteskunde-aginduaren 24.2. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, euskal federazio guztiek eta lurraldekoek lankidetzan jardun beharko baitute hauteskunde arloan. Era berean, testu beraren 26.3. artikuluan adierazitakoa bete beharko da, euskal federazioek lurralde-federazioen errolde aurka alegazioak eta errekursoak aurkezteko eskubidea izango baitute.

Bosgarrena.- Errekurtsoan jasotako gainerako eskaera guztiei dagokienez, hau da, «zerrendak» –lurralde-federazioek eta euskal federazioek egindako errolde buruz ari dela pentsatzen dugu– eta graduen karnetei buruzko txosten juridikoa helarazteko eskaerei dagokienez, hori ez da Batzorde honen eskumena, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluekin bat etorriz.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

EBAZTEN DU

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak 2016ko abenduaren 5ean Hauteskunde Batzordearen ziurtagiriaren (2017ko urtarrilaren 10ean argitaratua) kontra



jarritako errekurtsua onestea. Bertan, Lurralde Federazioek emandako lizentzia-kopurua eta batzarkideen kopurua eta estamentuak jasotzen dira.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea